



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko abenduaren 19a

149. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, SICAV-kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen pribilegio fiskalak indargabetezekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zerga aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).
- Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta lan-errenten eta kapital-errenten zergapetze-sistema bikoitza kentzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan liburutegi publiko integral baten zerbitzua ziurtatzeko, bai ikasteko bai kontsultarako, asteko zazpi egunetan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da erlijioaren irakaskuntza ken dezan irakaskuntza ez-unibertsitarioetako curriculumetik. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Nafarroako Gobernuak jarraitzea gurutze erramuduna mantentzen Nafarroako Jauregiaren fatxadako Nafarroako armarrian, eta eskatzen du Nafarroan dauden ikur frankisten katalogo bat presta dadin, haiek kentze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako boluntario-entitateen erregistro bateratua sor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa agertzen du Nafarroako lurraldean Guardia Zibilaren kuartel berri bat irekitzea dela-eta. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia inauguratzeko eta abian jartzeko aurreikusitako datari buruzkoa. Galdera erretiratzea (8. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2013ko abenduaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza Garcia jaunek aurkeztutako Foru Lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzekoa.

Proposamen hori 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2013ko abenduaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza Garcia jaunek aurkeztutako Foru Lege proposamena, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Proposamen hori 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, SICAV-kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen pribilegio fiskalak indargabetzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2013ko abenduaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztutako Foru Lege proposamena, SICAV-kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen pribilegio fiskalak indargabetzekoa.

Proposamen hori 2013ko azaroaren 15eko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zerga aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2013ko abenduaren 12an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez har-tzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parla-mentu-taldeek aurkeztutako Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zerga alda-tzen duena.

Proposamen hori 2013ko azaroaren 15eko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argi-taratu zen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta lan-errenten eta kapital-erren-ten zergapetze-sistema bikoitza kentzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2013ko abenduaren 12an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez har-tzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parla-mentu-taldeek aurkeztutako Foru Lege proposamena, neurri fiskalei eta lan-errenten eta kapital-errenten zergapetze-sistema bikoitza ken-tzeari buruzkoa.

Proposamen hori 2013ko azaroaren 15eko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argi-taratu zen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan liburutegi publiko integral baten zerbitzua ziurtatzeko, bai ikasteko bai kontsultarako, asteko zazpi egunetan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko abenduaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan liburutegi publiko integral baten zerbitzua ziurtatzeko, bai ikasteko bai kontsultarako, asteko zazpi egunetan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren neurriak har ditzan liburutegi publiko integral baten zerbitzua ziurtatzeko, bai ikasteko bai kontsultarako, asteko zazpi egunetan”.

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da erlijioaren irakaskuntza ken dezan irakaskuntza ez-unibertsitarioetako curriculumetik.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko abenduaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da erlijioaren irakaskuntza ken dezan irakaskuntza ez-unibertsitarioetako curriculumetik”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du unibertsitateaz kanpoko

irakaskuntzako curriculumetik ken dezan erlijioaren irakaskuntza eta, hortaz, curriculumetik eta eskola-orduetatik kanpo gera daitezten izaera konfesionaleko arloak edo ikasgaiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren tresnak taxutu ditzan salatze aldera Espainiako Estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko Akordioa, irakaskuntzei eta gai kulturelei buruzkoa”.

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Nafarroako Gobernuak jarraitzea gurutze erramuduna mantentzen Nafarroako Jauregiaren fatxadako Nafarroako armarrian, eta eskatzen du Nafarroan dauden ikur frankisten katalogo bat presta dadin, haiek kentze aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko abenduaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du Nafarroako Gobernuak jarraitzea gurutze erramuduna mantentzen Nafarroako Jauregiaren fatxadako Nafarroako armarrian, eta eskatzen du Nafarroan dauden ikur frankisten katalogo bat presta dadin, haiek kentze aldera."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Nafarroako Gobernua tematzea Nafarroako Jauregiko armarriko gurutze erramuduna, San Ignazio

etorbideko fatxadako frontoikoa, mantentzen, eta mozio hau onesten denetik aitzina gehienez ere bi hilabeteko epean erretira dezan exijitzen du.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Nafarroan oraindik dauden sinbolo frankisten katalogo bat egin dezan, horien kokalekua zehaztuta. Katalogoak hiru hilabeteko epean egon beharko du eginda eta Nafarroako Parlamentuaren esku.

3. Hurrengo hiru hilabeteetan, Gobernuak aipatu katalogoan jasotako sinbolo guztiak kenduko ditu."

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako boluntario-entitateen erregistro bateratua sor dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko abenduaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako boluntario-entitateen erregistro bateratua sor dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean Nafarroako boluntario-entitateen erregistro bateratua sor dezan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du boluntariotzari buruzko plan edo estrategia bat egin dezan, boluntario-entitateekin adostua."

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa agertzen du Nafarroako lurraldean Guardia Zibilaren kuartel berri bat irekitzea dela-eta.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere arbuioa agertzen du Nafarroako lurraldean Guardia Zibilaren kuartel berri bat irekitzea dela-eta"

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2013ko abenduaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aur-

keztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2013ko azaroaren 15eko 132. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia inauguratzeko eta abian jartzeko aurreikusitako datari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko abenduaren 12an egindako bileran, adierazi zuen jakinaren gainean zegoela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Reyno de Navarra Arena erabilera anitzeko kiroldegia inauguratzeko eta abian jartzeko aurreikusitako datari

buruzkoa zen, eta 2013ko urriaren 18ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera